

CHILEN HILDAKO BI KANTARI

Chilez gauza gutxi jakin dugu eta, zoritxarrez, gauza gutxiegi esan da. Chile, inperialismoak bere adarrak erakusten dituen beste horrelako denbait fenomeno bedela, gertakizun politiko soil bat baino gehiago da. Chile heriotze bat da: itxaropenaren heriotzea, hain zuzen. Izen merke eta sobatua, itxaropena! Poeta negartien hitza; politikari eta eliz-gizon kroko-diloen hitz topikoa, alegia.

Chilen, indarren arteko erlazio bat trajeria bilakatu da; trajeria odoltsu hortan batzuek ehaile papera bereganatuz, azken fineraino bete dute: giza-legearen aztarrenik zipitzena ere urratu arte. «A conciencia», gaztelaniaz esaten den bezela. Eho, odoldu, torturatu, desegin, zapaldu, isilerazi... Ja, demokrazia, zer nolako kaxondeoa Pinochet eta kidekoentzat!

Guk horrelako gertakizun baten aurrean ezin genezake, zoritxarrez, ezertxo ere egin. Esan bakarrik egin genezake, doi-doia; han gertatutako astakerien izpi batzuk agertu. Hitza jaso. Ezertarako balioko ez badu ere.

Eta gaur, kantari bezela (kantari edo horrelako zerbait ere ba omen gera ta) hango bi kantariren oroitzapena gordetzea dagokit. Chilen afusilatuak izan diren bi kantariren oroitzapena, alegia. Azken aste hauetan Donostian zehar ibilia den hegoamerikar kantari baten bidez erailketa horri buruz zerbait jakin genuen; eto orain, gutxien espero nuela. Madriden argitaratzen den «AU» izeneko aldizkari baten bitartez, zehaztasun gehiago jaso ahal izan dut. Aldizkari horrek, 1973. abenduko zenbakiaren berderatzigarren orrian honela dio:

«Chilekotrajeriaz azken egun hauetan jasotzen ari geran albixtetatik ez dakigu zer den minik haundiena ematen diguna: hango espetxeratze, heriotze eta torturen berri jakiteak, ala egunkariak argitaratzen dituzten gertakizun hoiei buruz ezer ere ezin egin ahal izateak. Benetan, jasan ezinezko frustrazio bat jaiotzen zaigu bihotzean.

Poliki-poliki eta tantoka bezela, han hildakoen eta betirako izkutatutakoen izenak agertuz doaz; asko ezezagunak ditugu, beste batzuetaz sekulan ez dugu nola hil diren eta nola deitzen ziren jakingo, baina beste hirugarrengoa batzuen izen eta deiturak ezagutu egiten ditugu. Batzuk arrotzak zaizkigu, baina beste batzuk guztiz hurbilekoak. Azken hauen artetik, zoritxarrez, hainbestetan entzuniko Victor Jara eta Angel Parra kantarien heriotza aipatu beharra dago.

Victor Jararen heriotzearen berri notizia desberdinak jasoz joan gera. Lehenik, «Universidad Técnica del Estado» delakoan hila izan zela; baina geroago beste berri zehatzago bat iritxi zitzaigun, eta horrek guztiz egiazkoa dirudi: Victor Jara «Estadio Nacional» ean afusilatua izan zela, tortura eta palizak jasan ondoren. Bere bizitzaren azken unetan oraindik abesti bat konposatzeko indarra izan omen zuen, eta berak nehoiz gehiago haizetara zabalduko ez duen abesti hori beste abots batzuk mundu osoan zehar kantatzen hasiak omen dira.

Angel Parraz, lehenik, begien bixtatik izkutatua zela esan zitzaigun, baina geroago, bere heriotzaren berri eman duten albixteak egiz tatuak izan dira, eta orain guztiz ziur baitz esan genezake, hau ere hila izan zela. Ojala jasotzen ari geran albixteak gezur hutsa balira, baina honelako kasoetan zoritxarrez notizia txarrak bakarrik izaten dira egiazko.

Victor Jara eta Angel Parraren heriotzak, koldarti, nahastzaile eta gezurraren gain beren probetxu zikoitza jaso nahi dutenen arrazona-



mendu bihurriak behin eta berriz desegin egiten ditu. Hain bestetan esana zitzaigun «protestadun» abestiak kantatzen zituzten abeslariak azken finean eta benetako garaian beren burua komertzializatu eta saldu egiten zutela, ze ia-ia hori sinisten hasiak ginen; eta penagarri da susmo hori gezurreztatzeko bi gorputz hilen lekukotasuna beharrezko izatea.

Egia, askatasuna eta justiziaren aldeko burruka ez da kanta soilekin egiten ahal, baina hauek ere parte dute eta burruka horren adierazpen dira. Agian horretxegatik hil dira Victor Jara eta Angel Parra; beren indarra egiazkoa izanik eta herriarentzat kantatuz herriaren mezulari bilakaturik, herria desegin nahi izan den garaian lehenik haien kantak lurperatu behar izan dituztelako.

Beste behin eta beste toki batetan bere bizia eskeiniko zuen Horacio Guarany kantariak honela idatzi zuen noizpait: «Kantaria isiltzen baldin bada, bizitza bera isiltzen da». Orain Chilen bizitza isilik dago, aski da hortaz jabetzeko egunkarietan datozen hango berriak irakurtzea; baina Bertolt Brechtekin batera guk ere badakigu «denbora larri eta meharretan ere kantatu egingen dela». Eta egun batean, abotsak eta abestiak itzalen artetik berriz jaikitzean, denek jakinen dugu Victor Jara eta Angel Parraren heriotza ez dela alferrikakoa izan.

Ez dago gehiago esan beharrik. Norbaitek argitu zidan bezela, Victor Jara eta Angel Parra ez dira di heroe, bi biktima baizik. Ukatu egin zaien bizitza hori maitatu egiten zuten; Chilen bizia galdutako beste hainbestek bezela. Bizia eman dute, baina bizitza maitatu ondoren.

Noiz iritxiko ote da mundu kaxkar hontan heroe eta biktimarik gabe denok bizi ahal izateko garaia?

XABIER LETE